

Kutxabankek 396,2 M€ irabazi ditu, bere merkataritza-jarduerak bultzatuta

- ‘Core’ diru-sarreraren hazkunde handia, 1.514,5 milioi eurora (+%16,4) iritsi baitira, batez ere interes-marjina handitu delako (+%23,4)
- Familientzat kreditu gehiago: kontsumorako finantzaketa hazi egin da (+%22,4), saltegi-kredituak eta eragiketa digitalek bultzatuta. Hipoteka-maileguen bolumena 2.386 M €-koa da
- Handizkako segmentuko finantzazioa % 2,3 hazi da, aldi horretan 1.000 M € baino gehiago hazi ondoren, eta guztira 14.838 M € izan dira
- Finantzaketa jasangarria 1.800 M €-koa da: % 70 enpresetara bideratu da, kontsumo ‘berdearena’ 1,7x hazi da eta hipoteketan ekoizpen berriaren % 22 da
- Kudeatutako inbertsio-fondoan harpidetza garbi handienak (1.484 M €) dituen hirugarren erakundea da, bere kuota % 7,4an finkatzen dutelarik. Gainera, lehen aldiz, balantzetik kanpoko baliabide kudeatuak 40.000 M €-tik gorakoak dira
- Digitalizazioan aurrerapenak: hipoteken % 81 online kanalen bidez merkaturatu dira, aurreikuspenaren % 74 eta kontsumorako kredituaren % 60. Eta erakundeko bezero guztien % 60 aktibo daude banka mugikorrean
- Berandutza-, kaudimen- eta efizientzia-ratorik onenak dituen bankua da: berankortasun-tasa (% 1,33) sektoreko txikiena da, CET1 *phased in* ratioa % 18,9koa da (oinarrizko 84 puntu hobetu da) eta efizientziarena % 34,9koa

2024ko urriaren 31.- Kutxabank Taldeak 396,2 milioi euroko emaitza garbia lortu du 2024ko urtarriletik irailera bitartean, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta % 2,8 hazi ondoren. Horrela, bere hazkunde- eta dibertsifikazio-helburu estrategikoak gainditu ditu bankuak, ‘core’ jarduerak bultzatuta, % 16,4 hazi baita, 1.514,5 milioi euroraino, interes-marjina handitu delako (+%23,4 1.031,8 M €-raino) eta zerbitzuen eta aseguruaren bilakaera positiboa izan delako, bai eta balantzetik kanpoko baliabideen (hala nola inbertsio-fondoak, zorro delegatuak eta aurreikuspen-produktuak) diru-sarrerak gero eta handiagoak direlako ere.

Kutxabanken merkataritza-jarduera bere hedapen-bektore ia guztietan nabarmendu da: bere posizioa sendotu du podiumean kudeatutako inbertsio-fondoan harpidetza garbietan, % 7,1 hazi baitira; beste marka edo errekor bat lortu du kontsumorako maileguetan (+%22,4); saltegi-kredituaren jardueran % 30 handitu du; 2.300 milioi euro baino gehiago gauzatu ditu hipoteka-mailegu berrietan; eta finantzaketa handizkako segmentuan 1.000 milioi euro baino gehiago hazi da. Negozioaren bilakaera horri erantzunez, 88.000 bezero gehiago lortu zituen bankuak (+%20).

Magnitude nagusien portaerak Taldearen hedapenean eta dibertsifikazioan inbertitzeko estrategia argi bati erantzuten dio, eta Espainiako ekonomiaren hazkundea, neurrizko desinflazio-prozesua eta interes-tasen pixkanakako jaitsieraren testuinguruan gertatu da. Hori erronka bat da sektorearen bitartekotza-marjinarentzat, eta kreditu-bolumenari mesede egingo dio finantzaketa merkatzeagatik.

Familientzako kreditu gehiago, batez ere kontsumorako

Kutxabankek familiei eta enpresei beren bizi- eta enpresa-jarduerak garatzeko ematen dien kreditua % 0,4 hazi da lehen bederatzi hilabeteetan, 47.328 milioi euroraino.

Partikularrentzako kredituetan, kontsumorako maileguak dira Kutxabanken apustu estrategikoetako bat bere hazkunde-planetan. Irailean, negozio horrek marka berria ezarri du,

557 milioi euroraino iritsi baita, % 22,4ko igoerarekin 2023ko aldi berarekin alderatuta. Saltegi-kredituko jarduera ere indartu egin da, eta % 30etik gora hazi da, 138,6 milioi euroraino.

Urteko lehen bederatzi hilabeteetan, ikusten da hipoteka-ekoizpena pixkanaka suspertu egin dela 2023ko ekitaldiaren bigarren erdialdetik. Bilakaera horren ondorioz, 2.386 milioi euroko bolumena lortu da aldi horretan harpidetutako hipoteka-mailegu berrietan.

Harpidetutako hipoteken % 81 prozesu digitalen bidez merkaturatu dira. Kanal digitaletan produktu eta zerbitzuen kontratazioari dagokionez, aurreikuspen-segmentua (salmenten % 74 online eginda) eta kontsumo-segmentua (% 60 online) nabarmendu dira. 2024ko irailean, bankuko bezero karterizatuen % 75 inguru jada digitalak dira eta banka mugikorreko bezero aktiboak % 60a iristen dira.

Berrikuntzari dagokionez, Kutxabank Investment-ek FINNK merkaturatzea nabarmendu behar da denboraldian; arreta pertsonalizatua % 100 digitala duen eta bere inbertsioen kudeaketan Adimen Artifiziala aplikatzen duen lehen inbertsio-plataforma da.

Enpresen finantzaketa, helburu estrategikoa

Helburu estrategikoen ildotik, handizkako segmentuan finantzaketak, 2023ko lehen bederatzi hilabeteekin alderatuta, % 2,3ko hazkundera izan du, 1.000 milioi euro baino gehiago hazi ondoren, 14.838 milioi euroraino.

Segmentuen arabera, banka Korporatiboan kreditu-inbertsioa % 3,7 hazi da eta 6.442 milioi eurora iritsi da. Enpresetarako bankakoa, berriz, 2.100 milioi eurotik gorakoa da, % 6,1 igo ondoren. Higiezinaren sustapenerako kredituak jarduera handia izan du: irail bitartean, % 20,3 hazi da 3.313 etxebizitza finantzatzeko, eta dagoeneko 2023an lortutako kopurua berdindu da. Gainera, ekintza-eremua zabaldu egin da, eta % 33 sustatzaile gehiagorekin hasi dira harremanak.

Banka Instituzionalean, Kutxabanke posizio sendoa du, hedapen-eremuetan bultzatuta, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo, eta bere kreditu-saldoa 5.600 milioi euro ingurukoa da.

Podiumean, kudeatutako inbertsio-fondoaren harpidetza garbiengatik

Kutxabanke administratutako bezeroen baliabideak 93.444 milioi eurokoak dira, eta 2023ko lehen bederatzi hilabeteetan erregistratutakoak baino % 11 handiagoak.

Irailera arte, horietako batzuen –hau da, balantzetik kanpoko baliabideen (inbertsio-fondoak, BGAEak eta pentsio-fondoak eta zorro diskrezionalak)– ekarpena gero eta handiagoa da: lehen aldiz 40.000 milioi eurotik gorakoak izan dira, eta Espainiako inbertsio-fondoaren laugarren kudeatzaile handiena Taldea dela berresten dute.

Eremu horretan, sortu berria den Wealth Management unitatean bilduta, Kutxabanke bezeroen eta kudeatutako ondarearen ataletan hazten jarraitzea aurreikusten du, negozio-dinamikak indartuz, produktu eta zerbitzu sorta sofistikatuz, eta finantza-aholkularitza pertsonalizatuan erreferente gisa sendotuz.

2024ko urtarriletik irailera bitartean, Kutxabank izan da kudeatutako inbertsio-fondoetan harpidetza garbi handienak izan dituen hirugarren erakundera, 1.484 milioi euroko sarrerekin (merkatu osoaren % 7 inguru), 28.894 milioi euroraino. Erakundeak eremu horretan duen kuota % 7,4koa da eta, inbertsio-fondo jasagarrietan, % 13,9koa.

Aurreikuspen indibidualeko produktuen bilakaera ere nabarmena izan da: horrela, Taldeak kudeatutako BGAEen ondarea % 4,9 igo da, 6.447 milioi euroraino, eta merkatu horretan bere lidergo-posizioa sendotu du, % 47,5eko kuotarekin.

Duela gutxi, Kutxabankek akordio bat lortu du Talde Gestión-en % 63 eskuratzeko, eta horrela aktibo alternatiboen merkatu gero eta handiagoaren aldeko apustu irmoa egin du. Eragiketa horrekin, erakundeak bere negozio-eredua sustatuko du eta Wealth Management unitatearen balio-proposamena indartuko du.

91.000 poliza berri baino gehiago aseguruetan

Aseguru-arloak ere hazkunde handia izan du, jarduera komertzial indartuarekin, 91.810 poliza berri sinatzea lortu baita, hau da, % 3,8ko hazkundera 2023ko irailarekin alderatuta.

Segmentu horretan, Auto eta Etxebizitza aseguruaren portaera –produktu horien ekoizpen berriak % 10 eta % 20 hazi dira, hurrenez hurren– eta bizi-arriskuko negozioaren dinamizazioa nabarmendu dira, baita ‘bidaiako laguntza’ produktua merkaturatzea ere; hori guztia etxeko ezbeharrak digitalizatzeko prozesu gero eta handiagoan eta bezero-esperientzia hobetu duen ‘call center’ baten sorreran.

Bilakaera horren ondorioz, aseguru-negozioak 125,5 milioi euroko ekarpena egin zion Kutxabanki, 2023ko lehen bederatzik hilabeteetan baino % 0,5 gehiago.

Sektorearen berandutza-, kaudimen- eta efizientzia-ratorik onenak

Kutxabank berriro sendotu da, gainbegiratutako sektorearen berandutza-, kaudimen- eta efizientzia-ratorik onenekin.

Izan ere, merkatuko berankortasun-ratorik txikiena izan du: urteko lehen hiru hiruhilekoetan, bere posizioa hobetzen jarraitu du, % 1,33ra murrizteraino; oinarritzko 211 puntu sektoreko batez bestekoaren azpitik, abuztuan % 3,44koa izan baita.

Diru-sarrera errepikarien sorkuntza sendoak –gastuak handitu arren, digitalizazioan eta talentuan inbertitzeko ahaleginari lotuta, eta saneamenduak gehitu arren, epe ertain eta luzean iraunkortasuna bermatzeko zuhertasunaren erakusle gisa– errentagarritasun-adierazle nagusiei eutsi die: ROTEk (kapital ukigarriaren gaineko itzulkina) 2023ko ekitaldiaren itxierako mailak finkatu ditu, % 9,3an; ROAk (aktiboen itzulkina) % 0,8an jarraitzen du; eta ROF (finantza-eragiketen ondoriozko emaitzak) eta bankuentzako zergaren eragina alde batera utzita, efizientzia-ratioa % 34,9an dago.

Kaudimenari dagokionez, Kutxabankek sendo jarraitzen du, % 18,9ko CET1 *phased in* ratioarekin, aurten orain arte oinarritzko 84 puntu hobetu ondoren.

Kapital-eskakizunei eustea

Europako Banku Zentralak Kutxabanki jakinarazi berri dio erakundearentzako kapital-eskakizunei eusten diela, berrikuspen eta gainbegiratze-ebaluazio prozesua (SREP) amaitu ondoren.

Horrela, finantza-taldeari Pillar 2ren (Pillar 2 Requirement - P2R) gainbegiratze-errekerimendua aplikatzen jarraituko zaio, 2025ean arriskuagatik haztatutako bere aktiboen % 1,20koa. Ondorioz, erakundeak gutxieneko maila batzuk mantendu beharko ditu: % 7,675ekoa eta % 11,70ekoa CET1 Ratorako eta Guztizko Kaudimen Ratorako.

Irailean, Kutxabank Taldearen kapital-ratioek nabarmen gaitzen dituzte eskakizun horiek.

Kutxabanken kontuak 2024ko urtarrila-iraila artekoak

Milioi eurotan	2024ko iraila	Δ%
Interesen marjina	1.031,8	23,4
Zerbitzu eta aseguruengatiko diru-sarrerak	482,7	3,9
Banku-negozioaren 'core' sarrerak	1.514,5	16,4
Dibidenduak, emaitzak baliokidetasunean eta ROF	76,1	-8,1
Ustiapeneko beste emaitza batzuk	-112,4	28,0
Marjina Gordina	1.478,3	14,1
Ustiapen Gastuak	-531,5	9,4
Ustiapen Marjina	946,8	16,9
Saneamenduak eta narriadurak	-445,3	61,9
Bestelako irabaziak eta galerak	20,9	36,5
Zerga aurreko mozkina	522,4	-5,0
Zergak eta bestelakoak	-126,3	-23,4
Taldeari egotzitako emaitza	396,2	2,8